

HEGAZTIZAIN EKOIZLE EKOLOGIKOAREN ZIURTAPENA NNPEKekin LORTZEKO ESKULIBURUA

Dokumentu honen xedea da hegaztizain ekoizlearen ziurtagiria lortzeko jarraitu beharreko prozesuaren eta oinarriko betebeharren berri ematea. Informazioa osatzeko, ekoizpen ekologikoaren araudia duzu eskura gure webgunean: www.cpaen.org.

Soil-soilik kontrolpean diren eta indarrean den ziurtapena duten nekazaritza eta elikadura ekoizpenek erabiltzen ahalko dituzte NNPEK kontseiluaren adostasun markak, bai eta “ekologikoa”, “biologikoa”, “organikoa” termino babestuak edo haien laburdurak ere.

NNPEK kontseiluak honako Eskuliburu hauek ditu eskura ziurtatu daitekeen jardura bakoitzari buruzko informazioa emateko (gorriz, Eskuliburu hau bera da):

JARDUERAK	INFORMAZIO ESKULIBURUAK
Ekoizpena (ekoizpenak biltegitururik edo ez, barne dira ekoizpen propioak eraldatu gabeko lanak).	
“Azpijarduera”: Begetala.	Ekoizpen Begetala (MAN001)
“Azpijarduera”: Animaliak (erlezaintza barne).	Abeltzaintza Ekoizpena: Ugaztunak (MAN002); Abeltzaintza Ekoizpena: Erlezaintza (MAN003); Abeltzaintza Ekoizpena: Hegaztiak (MAN008)
“Azpijarduera”: Akuikola.	Abeltzaintza Ekoizpen Akuikola (MAN004);
Elaborazioa edo Prestaketa (biltegitururik edo ez, eraldakuntza da barne, bai eta bestelako lanak ere, hala nola hiltzea, ontziratzea, etiketatzea).	Elaborazioa (MAN005)
Inportazioa (Europar Batasuneko herrialdeetatik kanpo, biltegitururik edo ez).	Inportazioa (MAN007)
Banaketa/Merkaturatzea (produktua biltegitururik edo ez, barne dira produktuari lotutako transakzio ekonomikorik gabeko “merkaturatze” jarduerak)	Banaketa/Merkaturatzea (MAN006)

ALDERDI OROKORRAK

Abeltzaintza ekoizpen ekologikoak animalien ongizatea eta gaitzen prebentzioa ditu oinarri, azienda egokiro gobernatuz (barne dago behar den maiztasunez kentzea simaurra eta elikagai isuriak edo ez kontsumituak, azindari elikadura ona ematea kalitatezko pentsu eta bazken bidez, elikadura orekatua, estresik ez eragitea, elikadura eta tenperaturak bat-batean ez aldatzea, ariketa egiteko aukera ahal denean, abeltzaintza-karga egokiak mantentzea eta instalazioetako baldintza higieniko eta sanitarioak).

Arrazak edo leinuak aukeratzean, kontuan hartu behar da animalien gaitasuna ingurune baldintzetara egokitzeko, eta haien bizkortasuna eta gaitzei aurre egiteko erresistentzia ere.

NNPEKek ez du aholkularitza teknikoa egiten, ekoizpena kontrolatzeko eta ziurtatzeko ardura duen Kontrol Agintaritza baita.

Ez da zilegi erabiltzea genetikoki eraldatutako organismoak (GEO), ezta GEOetatik edo haien bidez lortutako produktuak ere.

Arauetan edo ziurtapen baldintzetan aldaketak direnean, NNPEKek jarriko ditu zure eskura www.cpaen.org webaren bidez eta, halaber, araudiaren bertsio finkatua eguneratuko du. Honako esteka honetan ikusten ahalko dituzu aldaketak eta bertsio eguneratuak: <https://www.cpaen.org/es/normativa/reglamentos>.

Zure ustiatzean gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi beharko dizkiozu NNPEK erakundeari, eta zure ekoizpen-unitateen deskribapena eguneratu, behar den bakoitzean (lursail berriei alta ematea, lursailak baja ematea, ekoizpenak biltegitratzeko instalazioak, etab.).

Prebentzio eta ardura neurriak hartu beharko dituzu arauak ezarritakoa betetzen dela bermatzeko eta baimendu gabeko produktu edo substantziekin izan litezkeen kutsadura arriskuak murrizteko.

Ematen dizkizun zerbitzuengatik urteko tasetan ezarritako zenbatekoak ordaindu beharko dizkiozu NNPEK erakundeari.

Kontrolak egiteko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio guztia jarri beharko duzu NNPEKen eskura eta, era berean, zure ustiatze giko elementu guztietarako sarbidea eman beharko diezu auditoreei, lursailak, instalazioak eta beste ikuska ditzaten.

Sumatuz gero ekoiztutako edo jasotako produktu bat ez datorrela bat ekoizpen ekologikorako araudiarekin, kasuan kasuko produktua bereizi eta identifikatu beharko duzu, eta susmoa frogatu badaiteke, ez duzu produktu hori eko gisa (edo konbertsio gisa) merkaturatuko eta erabiliko, salbu susmoa baztertzen ahal baduzu; nolana ere, susmoa baztertzerik ez baduzu, NNPEK kontseiluari jakinarazi beharko diozu.

NNPEKen “Ekoizpen Begetalerako Ziurtapen Eskuliburua” izan beharko duzu kontuan, zure abeltzaintza ustiapenaren lurralde-oinarria maneiatzeko.

ALDI BEREKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA ETA EZ-EKOLOGIKOA

Ustiapenak ekologikoak izan behar dira espezie jakin bati dagokionez, eta ez da zilegi espezie beraren aldi bereko ekoizpena (ekologikoa eta ez-ekologikoa); ez bada nekazaritza ikerkuntzarako edo hezkuntza ofizialerako eta betiere arauzko baldintzak betetzen badira.

Zilegi da espezie ezberdinak izatea ekoizpen ez-ekologikoan (ustiapen mistoa), baldin eta espezie horiek ez badira bazkatzen aldi berean animalia ekologikoen larre berberetan, eta larre ekologikoetan bakarrik bazkatzen badira epealdi mugatu batean urte bakoitzean, eta argi eta garbi berezitako eraikinak badituzte.

ANIMALIEN JATORRIA

Animalien jatorriari dagokionez, hasieran talde edo saldo bat osatzen denean, edo berritzen edo berrosatzen denean, Agintari Eskudunak hegazti ez-ekologikoen sarrera erabakitzen ahalko du, baldin eta hegazti ekologikorik eskura ez badago eta arrautzak edo haragia ekoizteko hegaztiei 3 egun baino gutxiago badute.

KONBERTSIO ALDIA:

Abeltzaintza produktuak produktu ekologiko gisa merkaturatuko badira, animalia konbertzionalek 10 asteko konbertsio aldia pasatu beharko dute haragia ekoizteko hegaztiei dagokienez (Pekingo ahateak izan ezik, 7 astekoa izanen baita) eta 6 astekoa arrautza ekoizteko hegaztiei dagokienez. Ez da zilegi animalia jatorriko produktuak “konbertsioan diren” produktu gisa merkaturatzea.

Konbertsio aldia zure jarduera jakinarazi eta ziurtapen eskaera egiten duzun unetik aurrera hasiko da zenbatzen; ez lehenago.

ELIKADURA:

Den-denak (% 100) ekologikoki ziurtatua izan behar du.

% 30ek ustiatetik bertatik etorri beharko du edota, hori ezin bada, hurbileko ustiatetik edo pentsulantetik.

Bazkak izan beharko dituzte eskura eguneko janarietan; adibidez, kanpoaldeetako bazka.

Hegaztien elikaduraren % 20 bazketatik etortzen ahalko da lehenbiziko "konbertsio" urtean, kanpoaldeetako parkeetatik beretatik edota ustiatetik bertako beste bazkaleku batzuetatik badatoz.

Hegaztien elikaduraren % 25 "konbertsioan" diren elikagaietatik etortzen ahalko da, eta elikaduraren % 100 izan daiteke ustiatetik bertatik badatoz.

Salbuespenez, ukuluko hegazti gazteentzat, eta ez badago lortzerik pentsu proteiko ekologikorik, eta baldintza jakin batzuk betetzen badira, baimena eskatzen ahalko da, urtean elikaduraren % 5 pentsu proteiko ez ekologikoen bidez emateko. Xedapen hori 2025eko amaiera arte aplikatuko da.

Konbertsioan den elikagaitan emandako kantitateak egiaztatze aldera, NNPEKek landare jatorriko elikagaien materia lehorra oinarri harturik kalkulatuko ditu aipatu ehunekoak.

OILATEGIAK/ERAIKINAK ETA KANPORAKO SARBIDEA:

EB 2020/464 Erregelamenduaren I. Eranskinaren IV. zatian kontsulta daitezke populazio-dentsitatea, eremu estalian eta aire zabalekoen gutxieneko azalera, eta etxeko hegaztientzako habien azalera, bai eta pertxen edo pausatze leku goratuak neurriak ere.

Edozein ekoizpen-unitatetan haragia ekoizteko erabil daitezkeen oilategien azalera osoa ez da izanen 1.600 metro karratutik gorakoa.

Hegaztien sarbide erraza izan beharko dute aire zabalera. Kanporako sarbidealdiak animalien bizitzaren herena izan beharko du gutxienez. Uretako hegaztien ur-korronte bat, putzu bat, laku bat edo urmael bat izan beharko dute eskura.

Hegaztientzako aire zabaleko eremuak landare sorta zabalez osaturiko landaretzaz egonen dira beteta (altuera handi-txikiak, belarra, zuhaixkak, zuhaitzia). Hegaztiei behar adina babes-instalazio edo babesleku eskaini beharko dizkiete, edo zuhaixkak edo zuhaitzak eremu osoan zehar banatuak, hegaztien eremu osoa modu orekatuan erabil dezaten. Ezin izanen da egon **150 m-tik gorako erradiorik hurbilen dagoen oilategiko tranpoletik**. Hala ere, distantzia hori **350 m**-ra zabaltzen ahalko da oilategi hurbileneko tranpoletik, betiere aire zabaleko espazio osoan hegaztiak eguraldi txarretik eta harrapariengandik babesteko behar adina babesleku banatuta badaude era orekatuan; gutxienez 4 babesleku izanik hektarea bakoitzeko.

Lurzoruaren herena, gutxienez, eraikin solidoa izanen da, hau da, ez listoi edo sareta itxurakoa, baizik eta lastozko azpiez, txirbalez, hareaz edo zohikatzez estalia.

Oilo erruleentzako oilategietan, oiloentzat eskuragarri dagoen lurzorua zati handi bat oiloen gorozkiak biltzeko erabili beharko da.

Oilategiek sarrera- eta irteera-tranpolak izanen dituzte, hegaztientzako tamaina egokikoak.

"Portxea": etxeko hegaztientzako eraikin baten kanpoalde osagarria, estalia eta isolatu gabea. Alderik handiengan, alanbrezko edo oihal metalikoko hesiak izan ohi dira, kanpoko baldintza klimatikoaren mende dago, argiztapen naturala dauka eta, hala badagokio, artifiziala, eta etzalekuz osaturiko lurzorua du.

Oilategi portxedunetan, oilategi estalia portxearekin komunikatzen duten tranpolek oilategiaren eremu estaliaren gutxieneko azalera erabilgarriaren 2 metro bider 100 m²-ko luzera konbinatua izanen dute gutxienez, eta portxea aire zabaleko eremuarekin komunikatzen duten tranpolek oilategiaren gutxieneko azalaren eremu erabilgarriaren 4 metro bider 100 m²-ko luzera konbinatua izanen dute gutxienez. Portxerik gabeko oilategien kasuan, oilategi estalia kanpoaldearekin komunikatzen duten tranpolek gutxienez 4 m bider 100 m²-ko luzera konbinatua izanen dute.

Oilategiak konpartimentutan banatzen ahalko dira. Gehieneko tamainak: konpartimentu bakoitzeko taldeak gehienez 3.000 buru izanen dituzte (txitatzeko arrautzen ekoizpenerako *Gallus gallus* espezieko gurasoak), 3.000 buru (erruleak), 10.000 buru (18 astetik beherako txitak), 4.800 buru (*Gallus gallus* espezieko gizontze hegaztiak), 2.500 buru (kapoiak), 4.000 buru (pulardak), 2.500 buru (indioilarrak), 2.500 buru (antzarak), 3.200 buru (Pekin ahate arra), 4.000 buru (Pekin ahate emea), 3.200 buru (Berberia ahate arra), 4.000 buru (Berberia ahate emea), 5.200 buru (pintada arrunta).

Konpartimentuen bereizketa:

- Konpartimentuak trenkada solidoen bidez bereiziko dira **pintada arrunta, ahate, antzara eta indioilarretarako**, eta trenkada horiek erabateko bereizketa fisikoa bermatuko dute lurzorutik sabaira, oilategiko konpartimentu bakoitzeko eraikinean.
- Konpartimentuak trenkada solido edo trenkada erdi itxien bidez edo sare edo sareen bidez egonen dira bereizita *Gallus gallus* espezieko gurasoentzat, oilo erruleentzat, txitentzat, oilar gazteentzat eta *Gallus gallus* espezieko gizontze hegaztientzat.

Hegazti sorta bakoitza hazi ondoren hustu beharko dira, lokalak eta bertan erabiltzen den materiala garbitu eta desinfektatzeko.

Oilategietan sortutako simaurra lursail ekologikoak ongarrizteko erabili beharko da, bai ustiatetikokoak bertakoak, bai beste ekoizle ekologiko batzuekin hitzarmenak eginez. Abeltzaintza ekoizpen ekologikoa debekaturik dago lursailik gabe; beraz, zure lurralde-oinarri ekologikoan banatu ezin duzun simaur soberakina izanez gero, 170 kg N ez gaintzeko ez hektareako ez urteko, akordioak egin beharko dituzu beste ustiatetik ekologiko batzuekin, beharrezkoa den azalera eskura izateko.

Maila anitzeko oilategiak. Geruza anitzeko sistemak dituzten oilategiak soilik erabiliko dira *Gallus gallus* espezieko gurasoentzat, oilo erruleentzat, etorkizunean arrautzak errungo dituzten txitentzat, etorkizunean ugalketarako baliatuko diren txitentzat eta oilar gazteentzat. Geruza anitzeko sistemak gehienez hiru eremu erabilgarri izanen dituzte, lurzoruaren maila barne, eta bermatuko dute hegazti guztiak askatasunez eta erraztasunez mugitu ahal izatea mailen artean edo tarteko eremuen artean. Eraiki beharko dira, hegazti guztiek sarbide berdina izan dezaten aire zabaleko eremuetara joateko.

JARDUNBIDE BAIMENDUAK ETA EZ-BAIMENDUAK

Hegaztiak hiltegi ziurtatu ekologiko batean hil behar dira, haragia ekologiko gisa merkataturako bada. Hona hemen gutxienezko adina hegaztiak hiltzeko: 81 egun oilaskoetarako; 150, kapoietarako; 49, Pekingo ahateetarako; 70, Berberia ahate emeetarako; 84, Berberia ahate arretarako; 92, ahate gurutzatuetaarako; 94, pintada arruntetarako; 140, indioilar arretarako; 100, indioilar emeetarako, eta 140, antzaretarako.

Honako jardunbide hauek ez dira zilegi:

- Hegaztiak kioletan edukitzea.
- Egunean 8 ordu baino gutxiago murriztea gaueko atsedenaldira etengabea argi artifizialik gabe.
- Elikadura behartua.
- Anemien agerpena sustatzen duten baldintzak edo dietak ezartzea animaliei.
- Sintesi kimikoko albaitaritzak sendagai alopatikoak edo antibiotikoak erabiltzea prebentziozko tratamenduetan.
- Hazkundera edo ekoizpena sustatzeko substantziak erabiltzea (antibiotikoak, kokzidiostatikoak edo hazkundera sustatzen duten beste substantzia artifizial batzuk barne) edota hormonak edo antzeko substantziak erabiltzea.

Honako jardunbide hauek dira zilegi:

- Argi artifiziala erabiltzea argi naturala osatzeko, egunean gehienez 16 orduz.

TRATAMENDUAK ETA OSASUNA:

Tratamendurako lehentasuna emanen zaie baimendutako produktu fitoterapeutikoei eta homeopatikoei, oligoelementuei eta nutrizio-gehigarriari, baldin eta eragin terapeutiko eraginkorra badute kasuan kasuko animalia-espeziearentzat eta tratamendua erabiltzen den gaitzetarako.

Beharrezkoa denean, prebentzio-neurriek eta lehentasunezko produktuek funtzionatzen ez badute, tratamenduak egiten ahalko dira sintesi kimikoko produktu alopaticoekin, albaitari baten ardurapean.. Halakoetan, bikoiztu egin beharko da animalia edo haren produktu eratorriak kontsumitzeko itxaronaldia, ekologiko gisa merkaturatu ahal izateko, eta gutxienez 48 orduz itxoin beharko da.

Txertaketak, parasitoen aurkako tratamenduak eta nahitaezko desagerrarazte programak izan ezik, animalia batek edo animalia talde batek 3tik gora tratamendu txanda jasotzen baditu sintesi kimikoko albaitaritzaren sendagai alopaticoekin edo antibiotikoekin 12 hilabeteko epean (edo tratamendu txanda bat baino gehiago, haien bizi-ziklo produktiboa urtebetetik beherakoa bada), animaliak edo horietatik eratorritako produktuak ezin izanen dira produktu ekologiko gisa saldu, eta animaliek berriz ere konbertsioaldiak pasatu beharko dituzte.

Abeltzaintza arloko lokalak, instalazioak eta tresnak garbitzeko eta desinfektatzeko, honako produktu hauek erabiltzen ahalko dira:

- Potasazko xaboa eta soda
- Ura eta lurrina
- Karea, kare bizia eta kare-esnea
- Sodio hipokloritoa (lixiba likidoa, adibidez)
- Soda kaustikoa eta potasa kaustikoa
- Hidrogeno peroxidoa
- Landareen esentzia naturalak
- Azido zitrikoa, perazetikoa, formikoa, laktikoa, oxalikoa eta azetikoa
- Alkohola
- Formaldehidoa
- Sodio karbonatoa

SALBUESPENEZKO BAIMENAK

Hondamendiren bat gertatuz gero, eta alde aurretik eskaturik, honako hau baimentzen ahalko da aldi baterako:

- Artaldea edo taldea animalia ez-ekologikoekin berritzea edo berrosatzea, baldin eta metodo ekologikoaren bidez hazitako animaliarik eskura ez badago, eta animalien arteko hilkortasun tasa handia bada.
- Epealdi mugatu batean pentsu ez-ekologikoak erabiltzea, murrizketak ezartzen direnean edo pentsuen ekoizpena galtzen denean.

GARBIKETA

Behar diren garbiketa neurriak hartu beharko dituzu, ekoizpen ekologikoak eta ez-ekologikoak ez nahasteko eta ez kutsatzeko, biltegiatuta dauden bitartean.

EKOIZPENEN MUGIMENDUAK ETA DERRIGORREZKO ERREGISTROAK:

Beste unitate ekologiko batzuetara bidaltzen dituzun produktuak guztiak behar bezala identifikatu beharko dira, arauzko baldintzen arabera. Horretarako, agiri osagarriak aurkeztu beharko dira, eta horien kopia bat gorde eta beste bat eman beharko diozu hartzaileari. Albaranak edo fakturak agiri osagarritzat jotzen ahalko dira,

derrigorrezkoa den informazioa jasotzen badute (NNPEK identifikazioa produktuaren ziurtapen-emaile gisa, “eko” produktuaren edo konbertsio bidean den produktuaren identifikazioa, produktuaren igorlearen eta hartzailearen identifikazioa, eta produktuaren trazabilitatea bermatzeko behar den informazio guztia).

Derrigorrezkoak diren erregistroak egin eta behar diren frogagiriak mantendu beharko dituzu araua betetzen dela bermatzeko. NNPEKek erregistro-ereduak jarriko ditu zure eskura, halakorik izan ezean erabil ditzazun. Derrigorrezko erregistroen artean daude animalien sarrera, irteera eta galera erregistroak, elikadura, tratamenduak eta albaitaritzazaintzak, eta erreklamazio-orriak. Erregistroak eguneraturik eta beterik izan beharko dituzu, haietan beharrezkoa den informazioarekin.

ZIURTAPENAREN PROZESUA eta ZIURTAPEN BETEBEHARRAK

Honatz ziurtapenaren prozesua:

1. Inskribatze-eskabidearen formulazioa aurkeztu behar da NNPEK kontseiluan, behar bezala betea eta sinatua, erantsi beharreko agiriekin batera. Galdetegia gure webgunean dago eskura: www.cpaen.org.
2. Ziurtapen Akordioaren sinadura. Aurrekontua prestatu eta helaraziko zaizu, eskaera egin denean indarrean diren tasen arabera. Ziurtapen eskabidea ez da betetzat eta onartutzat joko, Ziurtapen Akordioa sinatua aurkezten ez bada.
3. NNPEKek hasierako auditoretza egingen du zure eskabidea ebaluatzeko. Ebaluazioa aldekoa ez bada, zuzenketa-ekintzak hartu eta ezartzen ahalko dituzu zehazten den epean.
4. NNPEK kontseiluak zure eskabidearen aldeko edo kontrako ebazpena jakinaraziko dizu, behin Ziurtapen Batzordeak zure espedientea aztertu ondoren. Erabakia hartzeko epea gehienez 6 hilabetekoa izanen da, eskabidea betetzen duzunetik aurrera.
 - Kontrako ebazpena ematen bada, 6 hilabeteko epea izanen duzu behar diren zuzenketa egiteko, Batzordeak zure eskabidea berriz ere baloratu dezan. Epe horretan zuzenketa egiten ez baduzu, ulertuko da ez diozula prozesuari segidarik eman nahi, eta espedientea itxiko da.
 - Aldeko ebazpena ematen bada, NNPEK kontseiluak ziurtagiria bidaliko dizu. Ziurtagiriak 24 hilabeteko indarraldia izanen du, aipatzen diren irismenatarako betiere.

Behin operadore ekologiko gisa inskribaturik, zure ziurtapenaren irismenaren zabalpena eskatzen ahalko duzu, horretarako NNPEKek bere webgunean eskura jarriko dizkizun galdetegiak erabiliz (www.cpaen.org). Irismen berria ziurtatzeko prozesua hasierako ziurtapenerako berbera izanen da.

Zure ziurtapen eskariei kontrako erabakia jasotzen badute, apelazio idatzia egiten ahalko duzu Alderdien Batzordean, 15 eguneko epean jakinarazpena jasotzen duzunetik aitzina. NNPEKek, zure apelazioa jaso izana adierazteaz gain, haren emaitzaren jakinarazpen idatzia egingen dizu. Hala ere, apelazioan bestelako dokumentazio teknikorik aurkezten baduzu, Ziurtapen Batzordeak berak ebatziko du, lehen erabakia hartzean eskura izan ez zuen dokumentazio berria delako. Ziurtapen Batzordeak apelazioa ebatzen badu dokumentazio berria delako, eta kontrako ebazpena bada, jakinaraziko zaizu oraindik ere baduzula Alderdien Batzordean apelazioa egiteko aukera.

NNPEKek, halaber, jakinarazten dizu kexak edo erreklamazioak egiten ahalko dituzula emandako zerbitzuagatik edota kontrol eta ziurtatze jarduerarekin zerikusia duten beste arrazoi batzuegatik. NNPEKek huraxe jaso izana adieraziko dizu eta hura bere prozedurekin bat kudeatzeko konpromisoa hartuko du, ekintza egokiak eginez eta dokumentatuz; emanen zaizun erantzun idatzian jakinaraziko zaizu zer ekintza egin litezkeen kasu bakoitzean.

Behin ziurtapena emanik, NNPEKek kontrol auditoretzak egingen ditu, arauak ezarritako maiztasun minimoarekin, eta arriskuen ebaluazioa zehaztuko du, ziurtapen akordioa mantentzen den bitartean eta Kontseiluan baja hartzen ez duzun bitartean. Kontrol bisualaz eta dokumentalaz gain, NNPEKek laginak hartzen ahalko ditu zure ustiatzean. Analisisiek araua urratu ahal izan dela adierazten badute, NNPEKek kontranalisisa egiteko eskubidea

duzula jakinaraziko dizu eta, baieztatzen bada, analisi ebazlea egiteko beharrezkin edo ez, dagokion ikerketa egingen du.

NNPEKek jakinarazten dizu laginen analisiak laborategiei azpikontratatzeko dizkiela. Hortaz, lagina hartzen bada, kontrol-auditoretzan bertan kontra egiten ahalko diozu lagin hori laborategi jakin batek edo batzuek aztertzeari, eta auditoreari zure jarrera justifikatu beharko diozu.

Kontrolen emaitzen arabera, NNPEKek urtero berrituko du zure ziurtapena, edo ziurtapena kendu edo bertan behera utziko du, dela orokorrean, dela ekoizpen sorta edo elementu zehatzetan.

Zuzenketa/konponketa ekintzak egin beharko dituzu zure jardura ziurtatua atzematen diren urraketak moldatzeko, kasu bakoitzerako ezartzen diren epeen barnean. Urraketa horiek moldatzen ez badira, NNPEKek jakinaraziko dizu zer ekintza egin eta hilabeteko epea izanen duzu moldatu ahal izateko. Urraketen arabera, hona hemen zer neurri har daitezkeen:

- Operadoreak zuzenketa-plan bat aurkeztea.
- Ziurtapena kentzea ekoizpen sorta bati edota unitateko elementuei (kalifikazioa kentzea lursailei edo animaliei), edo erreferentzia ziurtatuei.
- Aurreko neurri batzuk edo antzeko batzuk batera.
- Ziurtagiria bertan behera uztea (ekoizpen metodo ekologikoari dagozkion terminoen erabilera debekatzea epealdi jakin baterako).
- Ziurtagiria kentzea (operadorearen baja).

Neurriak ezarriko dira, urratu den betebeharraren garrantziaren arabera, eta jardura irregularren eitearekin eta inguruabar zehatzekin. Haien berri ematean, NNPEKek jakinaraziko dizu apelazioa egiteko eskubidea duzula.

Ziurtagiria bertan behera uzten bada, neurri hori jakinarazten denetik 6 hilabete baino gehiago igarotzen badira hura eragin duten arrazoiei konponbiderik eman gabe, operadoreari baja ematen ahalko zaio. Operadoreari baja ematea erabakitzen bada, ezin izanen da berriro operadore gisa alta eman 12 hilabeteko epean.

NNPEK kontseiluarekin sinatzen duzun ziurtapen-akordioak bi alderdien eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak jasoko ditu. Hala eskatuz gero, NNPEKek zure eskubideak, betebeharrak eta konpromisoak jarriko ditu zure eskura, bai eta NNPEKen konpromisoak eta erantzukizunak ere.

Indarrean diren tasen, kontsulten edo argibideen berri izateko, jarri gurekin harremanetan 948-178332 telefonoan.

Kontrol eta Ziurtatze Saila
CPAEN-NNPEK